



ESAERA ZAHARREN XXX. TXAPELKETA SOPELAN (2025-IV-05)

OINARRIAK

- 1.- Txapelketa taldeka egiten da (2, 3 edo 4 kide, 16 urtetik gorakoak).
- 2.- Izena emateko azken eguna martxoaren 31 izango da, helbide honetan: <https://praktikatu.eus/esaerazaharrak/> Ordurako, pentsatuta eduki taldearen izena.
- 3.- Taldeek 12 € ordaindu beharko dute izena ematean, inskripzio gisa (Sopelako gazteen kuadrillek, doan). Bazkarirako, 18 € pertsonako (langabeek, 15 €). Ordaintzeko bideak-eta goiko web-orrian daude.
- 4.- Txapelketan, izenaz gain, taldeek zenbaki bana izango dute: 1. taldea, 2.a, etab.
- 5.- Parte-hartzaileek 100 esaera zahar dute ikasteko. Horietako bat, haatik, berria da ("esaera zahar berria"). Hori identifikatzen dutenen artean sari bat zozketatuko da; edonola ere, esaera hori besteen moduan erabiliko da txapelketan.
- 6.- Txapelketak HIRU ATAL ditu: eguerdian KANPORAKETAK (11:00etan da elkartzeko ordua, eta 11:30etik aurrera hasiko da lehiaketa), eguerdian HERRI-BAZKARIA (15:00etan) eta arratsaldean FINALAK (17:30etik aitzina +/-); lehenengoan eta hirugarrenean, bertsoei dagozkien esaerak asmatzea da gakoa.
- 7.- Horretarako, hainbana bertso entzungo dituzte taldeek, ordena jakin batean. Bertsoak behin kantatuko dira, dagokion taldeak hala eskatu ezean, eta orduan 1 minutu emango da erantzuteko, bozeramalearen bidez. Erantzun bakarra onartuko da taldeko.
- 8.- Ez dago esaerak edozein modutara esaterik: epaileak ontzat emateko, esaerak zerrenda ofizialean agertzen diren era berean (hitzez hitz, letraz letra) adierazi behar dira. Jakina, txapelketan ezin da zerrenda eskuan edo bestelako euskarrietan izan.

- 9.- Bere txandan asmatu esatera bakoitzeko, 2 puntu eskuratuko ditu taldeak.
- 10.- Esaera asmatu ezean, beste taldeek erreboterako aukera izango dute (ordena aurretik adieraziko du epaileak), baina bertsoa ez da berriro kantatuko. Asmatuz gero, 1 puntu esleituko da.
- 11.- Edozein zalantza sortzen delarik, bihotz oneko zein entendimentu handiko epaile ahalguztidun-orojakileak ebatziko du.
- 12.- Goizean, ibilbidetan banatzen dira taldeak. Bakoitzean puntu gehien batzen duen taldea joango da FINALERA; arratsaldean, finalaurrekoetan, bi talde sailkatuko dira finalerako; finalean puntu gehien lortzen duena izango da IRABAZLEA.
- 13.- Kanporaketetan zein finalean HAINBANA gertatuz gero, bertso bana (edo behar direnak) kantatuko da, harik eta berdinketa apurtu arte.
- 14.- Antolakuntzak eskubidea du honako oinarriak aldatzeko, beharrezko iritziz gero. Badago kexatzea, jakina.
- 15.- Finala gidatzeko, Epaimahaia eratuko da; Antolakuntza-taldeak erabakiko du nork (eta zenbatek) osatuko du(t)en.
- 16.- Txapelketan parte hartzeak ezinbestean dakar oinarriok onartzea. Ez dago aurkaratzerik (inpugnatzerik), baina gogoratu 14. oinarriaren azken esaldia.

ESAERA ZAHARREN TXAPELKETAKO ANTOLAKUNTZA-TALDEA

URIBE KOSTAKO AEK

609 25 21 59 / 695 77 40 15

<https://praktikatu.eus/esaerazaharrak/>

esaera.zaharrak@aek.eus

Elkarbizitzarako oharra:

- **Tabernan**, tragoa epaileari edo arduradunari eskatu, eskaera-orrian apunta dezan; ez tabernariari.
- Saia gaitzen pote bera hartzen tabernetan, inor ez erotzeko.
- **Bazkarian**, arduradunek eramango dute edaria eta janaria mahaira.
- 4 pertsonako unitateak izango dira oinarri; zure taldean 2 edo 3 bazarete, beste norbaitekin eseri beharko zarete.
- Horregatik, EZ UTZI LEKU LIBRERIK (mesedez).
- 4 pertsonako, hauxe: botila bat ur, pitxerra garagardoa ALA botila ardoa gehi plater bat janari. Dagokion bezala partekatu 4ron artean.
- Aparteko zer edo zer nahi izanez gero, norberaren kontura.
- Oharrok betez gero, denok zorientsu ibiliko gara.